

2024MDID0003
Eskoriatza Bizirik 2024

Eskoriatzako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetarako erosketa-bonuak erabiltzeko oinarriak

ATARIKOA

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako zazpigarrena "sustapen ekonomikoa eta soziala" izenekoa da.

Lerro honen D ekintza Eskoriatzako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetarako erosketa bonuak dira. Laguntza honen helburua Eskoriatzako merkataritzan, ostalaritzan eta beste zerbitzu batzuetan gastua sustatzea da, kontsumo bonuen jaulkipenaren bidez, egungo egoera ekonomikoak eta kontsumo ohitura berriek eragindako galerak arintze aldera.

Erosketa bonu hauek "Eskoriatza bizirik" ekimenaren baitan sartzen dira, sektorea biziberritzeko, herritarrek erosketak herrian egitera animatzeko eta guztion artean Eskoriatzako kaleak bizirik mantendu ahal izateko helburua baitute.


1. Helburua.

Deialdi honen xedea da herritarrei, erosketa-bonu bidez, kontsumo-ondasunak eta zerbitzuak erosteko dirulaguntzak arautzea, eta ekimen berari atxikitako establezimenduek ekimenean parte hartzeko baldintzak arautzea.

2. Erregimen juridikoa.

Deialdi honek araudi hau izango du:

- Oinarri hauek.
- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorrak.

Kodea	A24/0136	Udala	Eskoriatza	
CUDO	000.0034.AAAADV5.J.826C			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAADV5J.826C			
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



- 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (Estatuko Boletin Ofiziala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorrak.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, eta, zehazki, 17.25 artikulua, honako hau jasotzen duena udalerrien eskumen propiozat: "Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak".

Araudi honetan jaso ez diren alderdi guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako legeak aplikatuko dira.

3. Aurrekontu kreditua.

Aurrekontuko diru-izendapena hamalau mila (14.000,00) eurokoa izango da, eta 2024an 0100.480.431.00.01 aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da.

4. Onuradunak.

Oinarri honetan aurreikusitako kanpainaren onuradunak bi motatakoak izango dira:

- Egoitza soziala Eskoriatzan duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduen titular diren pertsona fisikoak eta juridikoak, loteria eta bestelako joko establezimenduetakoak, farmazietakoak eta estankoetakoak, salbu.
- Eskoriatzako establezimendu edo dendetan ondasun edo zerbitzuren bat erosteko bonuak erabiltzen dituzten herritarrak.

5. Onuradunek bete beharreko baldintzak.

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen kasuan:
 - Jardueraren helburu nagusia kontsumitzaileari kontsumo-produktuak eta -zerbitzuak zuzenean saltzea izatea.
 - Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
 - Eskoriatzako Udalarekin zorrik ez izatea.
- b) Partikularren kasuan:
 - Eskoriatzan erroldatuta egotea.



- Adinez nagusia izatea.

6. Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 10. artikuluan jasotako Eskoriatzako establezimenduren batean egiten diren erosketak.

7. Dirulaguntzen zenbatekoa:

Erosketa-bonu bakoitzak 30 €-ko balioa izango du (5 €-ko bonutan banatuta), eta onuradun bakoitzak 20 €-tan erosiko du; beraz, 30 €-ko balioa duten produktuak edo zerbitzuak erosiko ditu. Udalak jarriko du erosketa-bonu bakoitzaren 10 euroko aldea.8. Parte hartuko duten

8. Saltoki partehartzaileen betebeharrak.

Eskoriatzan "Eskoriatza bizirik" bonuen kanpainan parte hartuko duten saltokien betebeharrak hauek izango dira:

- a) Erosketaren edo zerbitzu-ematearen ordainetan jasotako bonuak dagokion tiketari eranstea.

Likidazio-inprimakia bete. Inprimaki horretan, aurkeztutako tiket bakoitzari dagozkion bonuak zerrendatu beharko dira, eta aurkeztutako bonu guztien batura adierazi.

Likidazio-orria, tiket eta bonuekin batera, udal erregistroan gutun-azal itxi batean entregatzea.

- b) Salmentaren zenbatekoa ezin izango da bonuen balioa baino txikiagoa izan. Bonu bidez erositako ondasunak itzultzeko politikari dagokionez, saltoki bakoitzak erabakiko du noiz eta nola egin itzulketak. Nolanahi ere, honako hauek izango dira aukerak:

- a) Produktua edo zerbitzua bonuak jaso dituen establezimenduko beste batekin ordeztea.

- b) Erosketa-txartelaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzea; kasu horretan, erosketa-bonuak deuseztatu direla jakinarazi beharko dute, eta bonu horiengatik jasotako zenbatekoa udalari itzuli beharko diote.

9. Laguntzen izaera.

Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira.



10. Atxikitutako saltokiak.

Eskoriatzako merkataritza-, zerbitzu-, ostalaritza- eta jatetxe-establezimendu guztiak hartuko dira atxikitako erakundetzat, baldin eta "Eskoriatza Bizirik" kanpainan izena ematen badute.

Udalarekin zorrak dituzten establezimenduak ezin izango dira atxiki, zorra zatikatzea eskatu eta eman ez bazaie behintzat.

Atxikitako establezimenduen zerrenda Eskoriatzako Udalaren webgunean argitaratuko da, horien zabalkundea sustatzeko.

Ez zaie inolako zenbatekorik ordainduko atxikita ez dauden establezimenduei.

11. Atxikitutako establezimenduei ordaintzeko epeak.

Udalak establezimenduek aurkezten dituzten likidazioak, tiketak eta bonuak jaso eta aztertuko ditu. Zerbitzu teknikoek akatsen bat antzematen ez badute, likidazioak bi asteko epean ordainduko dira.

Ordainketak banku-transferentzia bidez egingo dira.

2024ko azaroaren 15ean amaituko da likidazioak aurkezteko epea.

12. Dirulaguntzen indarraldia eta kanpainaren egutegia.

1. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO KANPAINA: "Eskoriatza Bizirik" bonu kanpainari buruzko informazioa helaraziko zaie merkatarari eta eskoriatzarrei.
2. Eskoriatzako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak irailaren 9tik urriaren 31ra bitarteko kanpainari atxiki ahal izango zaizkio.
3. Atxikitako establezimenduek "Eskoriatza Bizirik" eranskailu bat erakutsiko dute identifikatuak izateko.
4. BONUEN SALMENTA:
 - a) Ordutegiak eta salmenta puntuak:
 - 2024ko irailaren 9tik 13ra, Ibarraundin.
Astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
 - Ostiralean, 10:00etatik 13:00etara.
 - 2024ko irailaren 16tik aurrera udaletxean.
Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.
 - b) Txartel bidezko ordainketak bakarrik onartuko dira.
 - c) Eskoriatzan erroldatuta dagoen adin nagusiko pertsona bakoitzak bonu bat erosi ahal izango du. Hori bermatzeko, bonuak erosterakoan ezinbestekoa izango da NAN zenbakia ematea.
 - d) Salbuespen gisa, bonua aurreikusitako ordutegian erosteko aukerarik ez duten pertsonak beste pertsona bati laga ahal izango diote NANA, haren izenean eros dezan.



5. Guztira 1.400 bonu jaulkiko dira.
6. "Eskoriatza Bizirik" bonuak Eskoriatzako establezimendu atxikietan bakarrik erabiliko dira ordaintzeko.
7. "Eskoriatza Bizirik" bonuak dituztenek 2024ko irailaren 2tik urriaren 31ra trukatu ahal izango dituzte, eta epe hori igarotakoan bonuak baliogabetuta geratuko dira.
8. Azaroaren 15era arte, atxikitako establezimenduek edozein unetan aurkeztu ahal izango dituzte likidazioak udal-erregistroan, herritarren arretarako ordutegian.

13. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Eskoriatzako Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen et gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela ziurtatzeko.

Atxikitako establezimenduek ez-betetzeren bat eginez gero, Eskoriatzako Udalak erosketa bonuen programara duten atxikimendua bertan behera utz dezake eta ez-betetzearen ondoriozko neurriak aplikatu.

Atxikitako establezimenduak behartuta daude Eskoriatzako Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

14. Espedientearen instrukzioa.

Dirulaguntza hauen instruktorea Ekonomia Garapen arloko teknikaria izango da.

15. Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoak erabakiko ditu, Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzaileak txostena egin ondoren, hala badagokio.



Bases para utilizar los bonos de compra en establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios de Eskoriatza

PREÁMBULO

El 21 de diciembre de 2023 se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Ayuntamiento de Eskoriatza. En este plan se recogen las líneas estratégicas, siendo la séptima de ellas la denominada "promoción económica y social".

El programa D de esta línea son los bonos de compra para establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios de Eskoriatza. El objetivo de esta ayuda es fomentar el gasto en el comercio, la hostelería y en otros servicios de Eskoriatza a través de la emisión de bonos de consumo; con el fin de paliar las pérdidas derivadas de la situación económica actual, así como por los nuevos hábitos de consumo.

Estos bonos de compra se enmarcan en la iniciativa Eskoriatza Bizirik, que busca revitalizar el sector, animar a la ciudadanía a realizar la compra en el municipio y, entre toda la ciudadanía, poder mantener vivas las calles de Eskoriatza.

1. Objetivo.

El objeto de esta convocatoria es regular las condiciones de las subvenciones a la ciudadanía, mediante bonos de compra, destinadas a la adquisición de bienes de consumo y servicios y regular las condiciones de acceso de los establecimientos adheridos a dicha iniciativa.

2. Régimen jurídico.

La presente convocatoria se rige por la siguiente normativa:

- Estas bases.
- La Ordenanza General reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza.
- Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado: 18-11-2003) y Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, en desarrollo de la misma.



- La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y en concreto su artículo 17.25, que recoge como competencia propia de los municipios "Desarrollo económico y social local y políticas o planes locales de empleo".

En todo lo no previsto en esta normativa será de aplicación la Ley 38/2003 General de Subvenciones y demás legislación vigente.

3. Crédito presupuestario.

La consignación presupuestaria será de catorce mil euros (14.000,00 euros) y en 2024 se financiará con cargo a la partida presupuestaria 0100.480.431.00.01

4. Personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de la campaña prevista en estas bases serán de dos tipos:

- Las personas físicas y jurídicas titulares de establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios con domicilio social en Eskoriatza, excepto las de lotería y otros establecimientos de juego, farmacia y estancos.
- Eskoriatzarras que utilizan bonos para adquirir algún bien o servicio en establecimientos o comercios de Eskoriatza.

5. Requisitos de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) En el caso de establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios:
 - Que el objetivo principal de la actividad sea la venta directa al consumidor/a de productos y servicios de consumo.
 - Estar al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social y Hacienda.
 - No tener deudas con el Ayuntamiento de Eskoriatza.
- b) En el caso de particulares:
 - Estar empadronado/a en Eskoriatza.
 - Ser mayor de edad.

6. Gastos subvencionables.



A los efectos de la presente convocatoria se consideran gastos subvencionables las compras que se realicen en alguno de los establecimientos de Eskoriatza recogidos en el artículo 10.

7. Cuantía de las subvenciones.

Cada uno de los bonos de compra tendrá un valor de 30 € (dividido en bonos de 5 €) y cada persona beneficiaria lo comprará por 20 €, por lo que adquirirá productos o servicios por valor de 30 €. La diferencia de 10 € de cada bono de compra lo aportará el ayuntamiento.

8. Obligaciones de los comercios participantes.

Las obligaciones de los comercios que participen en la campaña de bonos Eskoriatza Bizirik en Eskoriatza serán las siguientes:

- a) Adjuntar el/los bono/s recibidos en contraprestación al pago de la compra o prestación del servicio al ticket correspondiente.

Rellenar el impreso de liquidación. En dicho impreso, deberán relacionar los bonos correspondientes a cada uno de los tickets presentados e indicar la suma total de los bonos presentados.

Entregar la hoja de liquidación junto con los tickets y bonos en un sobre cerrado en el registro municipal.

- b) El importe de la venta no podrá ser inferior al valor de los bonos.

En cuanto a la política de devolución de los bienes adquiridos mediante bonos, cada comercio determinará cuándo y cómo proceder a las devoluciones. En cualquier caso, las opciones serán las siguientes:

- a) Sustituir el producto o servicio por otro del establecimiento que ha recibido el/los bono/s.
- b) Abonar en metálico del importe del ticket de compra, en cuyo caso deberán informar de la rescisión de los bonos de compra y devolver el importe recibido por esos bonos al ayuntamiento.

9. Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas que se concedan en el marco de este programa tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

10. Comercios adheridos.



Tendrán la consideración de entidades adheridas, todos aquellos establecimientos comerciales, de servicios, de hostelería y de restauración de Eskoriatza que se inscriban en la campaña de "Eskoriatza Bizirik".

Los establecimientos que tengan deudas con el Ayuntamiento no podrán ser adherirse salvo que hayan solicitado y se les haya concedido el fraccionamiento de la deuda.

La relación de los establecimientos adheridos se publicará en la página web del Ayuntamiento de Eskoriatza con el fin de promover su difusión.

No se abonará cantidad alguna a los establecimientos no adheridos.

11. Plazos de pago a los establecimientos adheridos.

El Ayuntamiento recibirá y analizará las liquidaciones, los tickets y los bonos que presenten por los establecimientos. Salvo que los servicios técnicos detecten algún error, las liquidaciones se abonarán en el plazo de dos semanas.

Los pagos se realizarán mediante transferencia bancaria.

El 15 de noviembre de 2024 vencerá el plazo de presentación de las liquidaciones.

12. Vigencia de las subvenciones y calendario de la campaña

1. CAMPAÑA INFORMATIVA SOBRE EL PROGRAMA: Se trasladará información sobre la campaña de bonos "Eskoriatza Bizirik", tanto a los comercios como a los eskoriatzarras.
2. Los establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios de Eskoriatza podrán adherirse a la campaña del 9 de septiembre al 31 de octubre.
3. Los establecimientos adheridos exhibirán una pegatina "Eskoriatza Bizirik" para ser identificados.
4. VENTA DE BONOS:
 - a) Horarios y puntos de venta:
 - Del 9 al 13 de septiembre de 2024 en Ibarraundi.
De lunes a jueves, de 10:00 a 13:00 y de 17:00 a 19:00.
El viernes, de 10:00 a 13:00.
 - A partir del 16 de septiembre de 2024 en el ayuntamiento.
De lunes a viernes de 10:00 a 13:00.
 - b) Sólo se admitirán pagos con tarjeta.
 - c) Cada persona mayor de edad empadronada en Eskoriatza podrá adquirir un bono. Para garantizarlo, a la hora de comprar los bonos será imprescindible facilitar el número de DNI.
 - d) Excepcionalmente, aquellas personas que no tengan opción de adquirir su bono en el horario previsto, podrán ceder su DNI a otra persona para que lo adquiriera en su nombre.



5. Se emitirán un total de 1.400 bonos.
6. Los bonos "Eskoriatza Bizirik" se utilizarán como forma de pago exclusivamente en los establecimientos adheridos de Eskoriatza.
7. Las personas que posean bonos "Eskoriatza Bizirik" podrán hacer uso de los mismos del 2 de septiembre al 31 de octubre de 2024, transcurrido ese plazo los bonos quedarán invalidados.
8. Hasta el 15 de noviembre, los establecimientos adheridos podrán presentar sus liquidaciones en cualquier momento en el registro municipal, en horario de atención al público.

13. Inspección e incumplimientos.

El Ayuntamiento de Eskoriatza, como responsable del programa, podrá realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás controles estime oportunos para asegurar el buen uso de los recursos públicos y el adecuado desarrollo y aplicación de este programa de ayudas.

En caso de incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Eskoriatza podrá suspender su adhesión al programa de bonos de compra y aplicar las medidas derivadas del incumplimiento.

Los establecimientos adheridos están obligados a facilitar cuanta información les requiera el Ayuntamiento de Eskoriatza para fiscalizar el destino de las ayudas.

14. Instrucción del expediente.

La instrucción de estas ayudas será a cargo del área de Desarrollo Económico.

15. Interpretación de las bases.

Las dudas que puedan surgir sobre la interpretación de estas bases serán resueltas por el órgano competente para su aprobación, previo informe, en su caso, de la Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible.

ESTABLEZIMENDUAREN FITXA
FITXA DEL ESTABLECIMIENTO



BONUAK/BONOS

Bakarrik bete behar da bonoen likidazioa lehengo aldiz egiten denean
A rellenar sólo la primera vez que se haga la liquidación de los bonos

DATUEN FORMULARIOA
FORMULARIO DE DATOS

Establezimenduaren izena:

Nombre del establecimiento:

Establezimenduaren helbidea:

Dirección del establecimiento:

IFK:

CIF:

Aktibitatearen titularra:

Titular de la actividad:

Harremanetarako telefonoa:

Teléfono contacto:

E-maila:

E-mail:

Kontu korrontea (IBAN eta 20 digito)

Cuenta corriente (IBAN y 20 dígitos)



BONOAK LIKIDATZEKO ORRIA

HOJA DE LIQUIDACIÓN DE BONOS



BONUAK/BONOS

Establezimenduaren izena:

Nombre del establecimiento:

IFK:

CIF:

BONOAREN ZENBAKIA NÚMERO DE BONO		KOPURUA CANTIDAD	€	BONOAREN ZENBAKIA NÚMERO DE BONO		KOPURUA CANTIDAD	€